

EMISIO GUTXIAGOKO IBILGAILUETAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN PROGRAMARI BURUZKO OHIKO GALDERAK

1- Non kontsulta daitezke ibilgailu berrien emisioak?

Ibilgailuen emisioak ezagutzeko, merkatuan eskuragarri dauden ibilgailu berrien kontsumoei eta CO₂ emisioei buruzko gida kontsulta daiteke: <https://coches.idae.es/guia-emisiones-consumos>

2- Noiz eman dakioke baja ibilgailuari?

2025eko apirilaren 1etik aurrera eman ahal izango zaio baja ibilgailuari.

3- Erakustaldi-ibilgailu baterako dirulaguntza eska daiteke?

Bai, erakustaldi-ibilgailuengatik dirulaguntza eska daiteke, gehienez ere 9 hilabeteko epean, lehen matrikulaziotik ibilgailuaren salerosketa-fakturaren datara arte.

4- Kontzesionario bakoitzeko erakustaldi-ibilgailuen mugarik ba al dago?

Ez dago mugarik.

5- Lehenengo fabrikatzaileak eta gero kontzesionarioak matrikulatutako demo ibilgailuak aukeragarriak al dira?

EZ dira hautagarriak. Kontzesionarioak edo salmenta-puntuak ibilgailu berri gisa erosi beharko dio ibilgailu fabrikatzaileari edo inportatzaileari.

6- Zer auto mota eros daitezke dirulaguntza hori eskuratu ahal izateko?

Turismoak (M1) eta furgonetak (N1): hidrogenozkoak, elektriko puruak, hibrido entxufagarriak, autonomia hedatukoak, petrolio-gas likidotuek (PGL), gas naturalak, gasolinak edo gasolioak eragindakoak.

125 g CO₂/km baino gutxiagoko emisio edo isuri beharko dituzte automobilek, eta 150 g CO₂/km furgonetek.

7- Derrigorrezkoa al da ibilgailu bat txatar bihurtzea?

Bai. Derrigorrezkoa da berriaren kategoria bereko ibilgailu bat txatar bihurtzea (autoa edo furgoneta, kasuaren arabera).

8- Autoaren prezioa edozein izan daiteke edo muga bat dago?

- M1en kasuan, prezioa ezin izango da 40.000 eurotik gorakoa izan (BEZa eta matrikulazio-zergak GABE).
- Hidrogenozko M1 ibilgailuen kasuan, gehieneko prezioa 75.000 eurokoa da (BEZa eta matrikulazio-zergak GABE).
- N1 ibilgailuen kasuan, ez dago gehieneko preziorik.

9- Zein baldintza bete behar ditu txatar bihurtutako ibilgailuak?

Txatar bihurtutako ibilgailuak bi baldintza hauetako bat bete behar du:

- 20 urte edo gehiagoko antzintasuna izatea (lehenengo matrikulaziotik txatar bihurtu arte), edo;
- 175 g CO₂/km baino gehiago isurtzea M1 kategoriako ibilgailuen kasuan eta 200 g CO₂/km baino gehiago N1 kategoriako ibilgailuen kasuan.

10- Apirilaren 1ean sartuko da indarrean laguntza-programa. Noiz amaituko da?

Programa 2025eko irailaren 15ean amaituko da, edo deialdiaren aurrekontua agortzen denean.

11- Dirulaguntza eskatzeko, lehenik autoa erosten da eta gero eskaera egiten da?

Ibilgailu berriaren erosketa zein ibilgailu zaharraren txatar bihurtzea 2025eko apirilaren 1etik aurrera egin behar dira.

Eskaera, berriz, ibilgailuak erosi eta txatar bihurtu ondoren egin behar da.

12- MOVES IIIren kasuan, dirulaguntza ibilgailu elektrikoak erosteko da. Laguntza programa honetan errekuntzako ibilgailuak ere sartzen dira, ezta?

Bai, halaxe da. Baldin eta ezarritako emisioen edo isurien baldintzak betetzen badira.

13- Noiz jarri zen indarrean laguntza-programa hau?

Emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza programa 2025eko apirilaren 1etik dago indarrean.

14- Non kontsulta daitezke programaren oinarriak?

Laguntza-programaren oinarriak EEEren webgunean daude argitaratuta:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-ayudas-a-inversiones-en-vehiculos-de-m?lang=eu-es>

15- Atzeraeraginezko izaera du programak?

Programak atzeraeraginezko izaera du 2025eko apirilaren 1etik.

16- Autoa EAetik kanpo eros daiteke?

Bai, ibilgailua EAetik kanpo eros daiteke.

17- MOVES IIIren luzapena al da?

Ez, emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen programaren deialdia MOVESen deialdi independentea da.

18- Dokumentazio guztia eskatzailearen izenean egon behar da?

Bai, eskaera eta dokumentazio guztia (fakturak, ordainagiriak, zirkulazio-baimena...) pertsona beraren izenean egon behar da.

19- Zer egin behar da lehenik, auto berria erosi edo zaharra txatar bihurtu?

Ibilgailua erostea eta ibilgailu zaharra txatar bihurtzea apirilaren 1etik aurrera egiten bada, erosketa edo jarduketa diruz laguntzeko modukoa izango da.

20- Ibilgailuek pertsona beraren izenean egon behar dute?

Bai txatar bihurtutako ibilgailuak bai ibilgailu berriak eskatzailearen izenean egon behar dute.

21- Non egin daitezke laguntza-eskaerak?

Laguntza-eskaerak EEEren webgunearen bidez edo Euskadi.eus bidez egin ahal izango dira:
<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2025/emisio-gutxiagoko-ibilgailuetan-inbertsioak-egiteko/web01-tramite/eu/>

22- Ibilgailu zahar batzuen fitxa teknikoan ez da emisioen datua agertzen. Nola lor daiteke?

CO₂ emisioen fitxa teknikoa eduki ezean, bi dokumentu hauetako bat aurkez daiteke:

- Fabrikatzailearen edo kontzesionarioen erantzukizunpeko adierazpena, sinatua, ibilgailu jakin horren emisioak adierazita.
- Eskatzaileak igorpenak aurkezteko, IDAEk argitaratzen dituen sei hilean behingo txostenetako baten ibilgailuaren modeloaren pantaila-argazki bat erabiltzea.
<https://coches.idae.es/historico-emisiones-consumos>.

23- Finantzatu al daiteke ibilgailuaren erosketa?

Bai, posible da ordainketa finantzaketa bidez egitea, betiere finantza erakundeak kontzesionarioari edo salmenta guneari egiten dion ordainketa 2025eko apirilaren 1etik, 2025eko irailaren 15era bitartean egiten bada.

24- Bateragarria al da MOVES emisio gutxiagoko ibilgailuen laguntza-programarekin?

Ez, emisio gutxiagoko ibilgailuen laguntza programaren dirulaguntza bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza batzuekin, baina MOVES IIIren dirulaguntza ez da bateragarria beste dirulaguntza batzuekin.

25- Txatar bihurtutako ibilgailuak TMIZ/IVTM ordainduta edo abonatuta izan behar du?

Bai. Txatar bihurtutako ibilgailuak gutxienez 2024tik izan behar du TMIZ/IVTM abonatuta.

26- Zenbat ibilgailurentzat eska daiteke dirulaguntza?

Ibilgailu bat (1) pertsona fisiko bakoitzeko eta hiru (3) ibilgailu pertsona juridiko bakoitzeko.